

## NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako eta Akitaniako lehendakariak legealdi berriko erakundeen arteko lehen bilera egingo dute ostiral honetan Bertizen

*Bilkura horretako gai nagusia Nafarroa euroeskualdean sartzeko akordioa lortzea izango da*

Jueves, 22 de octubre de 2015

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkos eta Akitaniako lehendakari Alain Rousset Bertizko Jaurerriko Jauregian (Bertizarana) bilduko dira, ostiral honetan. Foru Komunitatean iragan uztailean legealdi berriari ekin zitzaionetik bi eskualdeek egiten duen lehenengo bilera izango da.

Barkos Lehendakariak alboko komunitateetako agintari gorenekin egindako hirugarren erakunde arteko bilkura da, [Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakari](#) Iñigo Urkullurekin (irailak 25, Iruña) eta [Aragoiko presidente](#) Javier Lambásekkin (urriak 2, Tuter) elkartu ondoren.



Bertizko Jauregia.

Rousset-ekin egindako bilkuraren gai nagusia asteazken honetan Nafarroako Gobernuak [Akitania-Euskadi euroeskualdean berriz sartzeko](#) eskaera egiteko onartutako akordioa izango da; Nafarroa euroeskualde horren sortzaile izan zen ere 1992an eta, bazkide, 2000. urtera arte. Bilkura hori Bertizko Parke Naturalean egingo da, Foru Komunitateko iparraldeko erakargarritasun natural nagusietako batean, eta Akitaniako eskualdeko turista asko erakartzen duena.

Topaketa instituzional hau 15:00etan hasiko da, eta euroeskualdearen gaiak gain, beste batzuk jorratuko dira: erakundeen eta lurralde-mailako lankidetzak, Akitaniako Pirinioetako Lan Elkartean hartuko duen bi urteko presidentetza; Nafarroak eta Akitaniak azken urteotan izandako alde biko harremanak; eta unibertsitate nahiz enpresa-berrikuntzan lankidetzak zehatzetarako proposamenak.

### Bertizko Jauregia

Bertizko Jauregia etxetar dotore barroko bat da, XVIII. mendekoa, eta Bertizko Jaurerriko eraikin nagusia da, parke naturaleko erdigunean eta Red Natura 2000 Europako Kontserbazio Bereziko Gune; 2.040 hektarea ditu, Bertizarana ibarrean dago (Nafarroako ipar-ekialdea), eta

Baztanetik oso hurbil, Baztan-Bidasoa ibaiarekin muga eginez. Haren inguruan, 3,4 hektareatako lorategi bereziak daude, munduko kontinente guztietako espeziez osatutakoa.

Finka eta eraikina Nafarroako Gobernuarenak dira, Ciga familiak dohaintzan emanda. 1984an, ingurua Parke Natural izendatu zuten. Bertan, hainbat ekintza egiten dira ingumenari lotura: bisitak, txanqoak, topaketak, erakusketak...